

METODOLOGIA-FITXA

GARRAIO ENPRESAK

Identifikazioa

Garraio Enpresak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko estatistika-eragiketa ez-ofiziala da. Estatistika-eragiketa horren xedea garraio sektorearen egitura eta ezaugarri nagusiak ezagutzea da. Eragiketa honek garraio sektorearen enpleguaren eta enpresen bilakaera ezagutzeko aukera ematen digu.

Eragiketaren izendapena:	Garraio Enpresak
Eragiketa-kodea:	Estatistika ez ofiziala
Erakunde arduraduna:	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
Gai-eremua:	Zerbitzu-sektorea
Maiztasuna:	Urtekoa
Eragiketa-mota:	Tabulazioa
Metodologia datuen jatorriaren arabera:	Datu estatistikoen erabilera

Datu-ustiapena egiteko, informazio-iturri moduan EUSTATEko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID) erabili dugu, eta garraio eta biltegitratze jarduerekin erlazonaturiko enpresa eta establezimenduen datuak landu ditugu (JESN-2009ko H atala, 49-53 mailak).

Helburuak

Garraio Enpresen helburu orokorra da garraio sektorearen eta garraioaren jarduera lagungarriaren egitura eta ezaugarri nagusiak ezagutzea.

Eragiketaren esparrua

Populazio-eremua:

Eragiketa honen xede den populazio-eremua enpresek eta establezimenduek osatzen dute, Euskal Autonomia Erkidegoko garraio sektorearen eta garraioaren jarduera lagungarriaren arloan jarduten dutenek.

Kasu guztietan, garraio publikoaren jarduerak hartzen dira kontuan, hau da, ordainketa ekonomiko baten bidez besteren baten kontura egiten direnak (16/1987 Legearen 62. artikulua, LOTT Lur Garraioen Antolaketakoa). Alderantziz, ez da jaso garraio pribatuaren inolako jarduerarik.

(JESN-2009) Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren honako talde hauek aukeratu ditugu:

- 4910 Bidaiarien hirien arteko garraioa trenez
- 4920 Salgaien garraioa trenez
- 4931 Bidaiariak garraiatzeko hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa
- 4932 Taxi bidezko garraioa
- 4939 Beste inon sailkatu gabeko bidaiarien garraiorako lurreko beste garraio mota batzuk
- 4941 Salgaien garraioa errepidez
- 4942 Etxe-aldaketako zerbitzuak
- 4950 Hodi-sare bidezko garraioa
- 5010 Bidaiarien itsas garraioa
- 5020 Salgaien itsas garraioa
- 5030 Bidaiarien garraioa barruko bide nabigagarrietatik
- 5110 Bidaiarien aireko garraioa
- 5121 Salgaien aireko garraioa
- 5210 Gordailatzea eta biltegiatzea
- 5221 Lurreko garraioarekin uztartutako jarduerak
- 5222 Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik egindakoari uztartutako jarduerak
- 5223 Aireko garraioarekin uztartutako jarduerak
- 5224 Salgaien manipulazioa
- 5229 Garraioarekin uztartutako beste jarduera batzuk
- 5310 Zerbitzu unibertsalaren betebeharraren pean kokatutako posta jarduerak
- 5320 Beste posta jarduera batzuk

Geografia-eremua:

Estatistikaren esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa da. Bertan kokatutako tokiko unitate eta establezimendu guztiak hartzen ditu. Beraiekin erlazionatutako unitate juridikoak (enpresak) EAEn edo EAetik kanpo errotuta egon daitezke.

Denbora-eremua: urtekoa

Laginketa diseinua

Ez da egokia; EUSTATEko Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren taulak lantzen direlako.

Zabalkundea

- Internet: Garraio Enpresen taula estatistikoak. Organo Estatistikoa.